



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

### **C. PLANAREN KUDEAKETA EREDUA, FINANTZAKETA, KOSTUAK ETA JARRAIPENA**

#### **C.1. KUDEAKETA EREDUA**

- Ezaugarri hauek dituen Etxebizitza Bideratzeko Plan batek (gure Erkidegoan etxebizitzaren arazoa konpondu nahi duenak), egungo eskumenen banaketa ikusirik, administrazioen eta erakundeen arteko lankidetzeta estua lortu behar du. Horretarako, argi dago Eusko Jaurlaritzaren Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren baliabideak beharrezkoa direla baina ez direla nahikoak bertako helburuak betetzeko, eta, Etxebizitza Bideratzeko Planak esaten duen bezala, beste Administrazio Publiko batzuen eta beste erakunde-, ekonomia- eta gizarte-agenteen parte-hartzea beharrezkoa izango dela.
- Hala ere, bidezkoa iruditzen zaigu Eusko jaurlaritzako Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren kudeaketa-ereduari buruzko zenbait hausnarketa egitea.
- Printzipioz, Sailburuordetzaren eta bere hiru Zuzendaritzen zeregina une honetan argi dago, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuak biltzen duen bezala.
- Baina 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren erronketako izan behar du Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailak eta bere menpeko sozietate publiko eta partaidetuek (VISESA; Bizigune, SA; Alokabide, SA eta Orubide, SA) osatzen duten kudeaketa-eredu osoa sendotzea. Bereziki azpimarragarria da Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren zerbitzuak eskaintzea euskal Udalen etxebizitza-politika aktiboen alde.
- Etxebizitza Bideratzeko Plan honen testuan jadanik aipatu dira kudeaketa-ereduaren zenbait alderdi, eta orain elkarrekin irakurtzea komeni da:
  - Bidezkoa dirudi Etxebideren (eta Etxebizitza Ordezkaritzen) kudeaketa-eredua, antolaketa-egitura eta dituen giza baliabideak eta baliabide materialak berrikustea, zereginak hobeto betetzeko eredu alternatibo bat proposatuz.
  - Orubideren irudia indartu behar da lurzoru-hornitzaile gisa, horretarako EAeko ekainaren 30eko Lurzoruari buruzko 2/2006 Legean aurreikusitako tresna berriak aprobetxatuz, eta bereziki agente urbanizatzaile gisa bere gain har ditzakeen eskumenei loturik. Horrela, Orubidek hiru jardun-ildo izango ditu: lurzoria lortzea bere garapenak gauzatzeko, VISESaren "project manager" izatea sozietate horrek lurzoria erosten duen jardunetan, eta Udalen agente urbanizatzailea edo laguntza aditua.
  - Planaren kudeaketa-ereduak Alokabide jartzen du alokairuko parke publikoaren kudeatzaile nagusi gisa, alokairuko etxebizitzaren ondare publikoa eratu eta mantentzeko jarduna laguntze-sistemekin indartuz.
  - Datozen urteetan Biziguneren garapen biziagoa errazteko, 2006-2009ko Planak komenigarritzat jotzen du sozietate publiko espezifiko bat sortzea.



## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

Status juridiko berri horren bitartez, Biziguneko lan-taldeari ahalmen handiagoa eman nahi zaio erabakiak hartzeko, kudeaketa arinago egiteko, eta giza baliabideak eta baliabide ekonomikoak hobeto ezagutzeko. Neurri horrekin bilatzen dena, azken finean, Biziguneren efikazia eta eraginkortasuna handitzea da, Planaren kudeaketa-ereduaren barruan nortasun propioa duen ente berri bat bezala agertzen baita.

### C.2. FINANTZAKETA

- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak aurreikusten du ezarritako helburuak lortzeko mobilizatutako finantza-baliabideen bolumena 1.268 milioi eurokoa izatea, hau da, 2002-2005eko Etxebizitza Bideratzeko Planean aurreikusitako 905 milioi euroak baino % 40 gehiago. Baliabide horiek kreditu-erakundeekin sinatzen diren finantza-lankidetzarako hitzarmen bitartez eskainiko dira, operadoreek finantza-erakunde horiekin mailegu kualifikatuak kontratatu ahal izan ditzaten.
- Gainera, mobilizatutako baliabideen guztizkoaren zifra oso bat lortzeko, zenbateko horri Etxebizitza eta Gizarte gaietako Sailak 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean erabilitako aurrekontu-baliabideak gaineratu beharko zaizkio.

### C.1 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren finantzaketa-koadroa

*(milako euro)*

	2006	2007	2008	2009	GUZTIRA
Alokatzeko sustapena	80.263	86.313	93.875	96.900	357.351
Azalera- eskubide/salmentako sustapena	196.625	196.625	196.625	208.725	798.600
Birgaitzea	9.600	9.600	10.080	10.560	39.840
Lurzorua lortzea	18.150	18.150	18.150	18.150	72.600
<b>GUZTIRA</b>	<b>304.938</b>	<b>310.688</b>	<b>318.730</b>	<b>334.335</b>	<b>1268.391</b>

*Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza*

- Partidak jardun-ildoan arabera zehaztuz gero, baliabide gehienak salmentarako sustapenerako izango dira (799 milioi euro inguru), alokairurako sustapenerako baliatuko direnen aurretik (357 milioi). Lurzorua lortzeak ere finantza-baliabideen bolumen handia hartzen du, 73 milioi euro inguru, eta birgaitze-jardunen finantzaketak, aldiz, 40 milioi euro inguru.



**Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila**

**C.3. AURREKONTU KOSTUAK**

- 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planak 952 milioi euroko aurrekontu-kostua du; 624 milioi pasatxo 2006tik 2009ra bitarte egin beharreko jardunei dagokie, eta beste 328 milioi, aldiz, etorkizunari begira hartuko diren betebeharrei.

**C.2 koadroa 2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planaren aurrekontu-kostuak**

(milako euro)

	2006	2007	2008	2009	GUZTIR A 06-09	Gainerak oa 2028ra arte	GUZTIRA
<b>Lurzoria eta urbanizazioa</b>	<b>26.624</b>	<b>27.287</b>	<b>27.000</b>	<b>27.916</b>	<b>108.827</b>	<b>22.060</b>	<b>130.887</b>
- Lurzoria lortzea	20.000	18.887	18.000	18.000	74.887	0	74.887
- Urbanizazioa	6.624	8.400	9.000	9.916	33.940	22.060	56.000
<b>Eraikitzea</b>	<b>1.250</b>	<b>14.975</b>	<b>34.432</b>	<b>35.405</b>	<b>86.062</b>	<b>111.938</b>	<b>198.000</b>
<b>Taldeko enpresetarako kapital-transferentziak</b>	<b>9.360</b>	<b>14.563</b>	<b>14.418</b>	<b>15.745</b>	<b>54.085</b>	<b>30.915</b>	<b>85.000</b>
- VISESA programa-kontratua	1.260	6.463	6.018	7.345	21.085	30.915	52.000
- ALOKABIDE, S.A.	8.100	8.100	8.400	8.400	33.000	0	33.000
- ORUBIDE, S.A.	0	0	0	0	0	0	0
<b>Etxebizitzari eta lurzoruari buruzko politika subentzionagarriak</b>	<b>43.750</b>	<b>68.300</b>	<b>78.500</b>	<b>88.350</b>	<b>278.900</b>	<b>160.176</b>	<b>439.076</b>
- Lurzoria lortzea eta urbanizazioa	0	3.000	3.000	3.000	9.000	12.000	21.000
- Alokairuko sustapena	15.000	21.750	24.750	27.000	88.500	136.176	224.676
- Landa-eremuetako etxebizitza erabiliak	750	750	750	750	3.000	0	3.000
- Sustapen itunduak	0	0	0	0	0	0	0
- Hutsik dauden etxebizitzak mobilizatzea	12.000	26.800	33.200	40.000	112.000	0	112.000
- Birgaitzea	16.000	16.000	16.800	17.600	66.400	12.000	78.400
<b>Beste politika subentzionagarri batzuk</b>	<b>8.090</b>	<b>9.390</b>	<b>8.840</b>	<b>3.840</b>	<b>30.160</b>	<b>2.700</b>	<b>32.860</b>
- Irisgarritasuna	3.000	3.800	3.000	3.000	12.800	1.700	14.500
- Eraikal	90	590	840	840	2.360	1.000	3.360
- Eremu degradatuak	5.000	5.000	5.000	0	15.000	0	15.000
<b>Langile- eta funtzionamendu-gastuak</b>	<b>15.845</b>	<b>16.320</b>	<b>16.810</b>	<b>17.314</b>	<b>66.290</b>	<b>0</b>	<b>66.290</b>
<b>2002-2005eko PLANAREN KOSTUAK GUZTIRA</b>	<b>104.919</b>	<b>150.835</b>	<b>179.999</b>	<b>188.570</b>	<b>624.324</b>	<b>327.789</b>	<b>952.113</b>
<b>Gastu hitzartuak</b>	75.081	36.165	13.001	11.430	135.676	64.211	199.888
<b>AURREKONTUA, GUZTIRA</b>	<b>180.000</b>	<b>187.000</b>	<b>193.000</b>	<b>200.000</b>	<b>760.000</b>	<b>392.000</b>	<b>1.152.000</b>

Iturria: Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila. Eusko Jaurlaritza



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- Etxebizitza-programaren gastuen aurrekontua lantzeko, aurreko ekitaldietan eginiko jardunak direla-eta harturiko konpromisoen zenbatekoa ere hartu behar da kontuan. Zehazki esanda, kontzeptu horri dagozkion gastuak 136 milioi euro izango dira 2006-2009an, eta beste 64 milioi euro 2028ra arte.

### C.4. PLANAREN JARRAIPENA ETA EBALUAZIOA EGITEKO TRESNAK

- Plana bera gauzatzeko ebaluazio- eta jarraipen-sistema bat proposatzen du Etxebizitza Bideratzeko Planak. Honako elementu hauek osatuko dute ebaluazio hori:

- **Planaren efikaziaren ebaluazioa**

Planarekin lortu nahi diren helburuak betetzen ote diren kontuan hartuko du etengabeko ebaluazio honek, planean bertan ezarritako helburu operatiboak adierazle gisa baliatuta.

- **Planaren eraginkortasunaren ebaluazioa**

Helburuen betetze-maila hartuko du kontuan etengabe, betiere helburuen beren kostuaren testuinguruan, eta etengabeko hobekuntzarako tresna gisa baliagarri izan beharko du, baita hurrengo planen baliabide-esleipena ezartzeko baliagarri ere.

- **Aurrerabidearen ebaluazioa**

Markaturiko helburuen arabera hartuko du kontuan planaren gauzatzearen nondik norakoa. Kudeaketako barne-adierazleen sistema bat sortuko da Planaren gauzatze-maila ebaluatzeko. Horretaz gain, eta gauzatze-maila hori eta dagozkion ebaluazioa jakinarazteko, urtean behingo bi Memoria landuko dira Plangintza eta Ekonomia Gaietarako Ordezko Batzordearentzat eta Eusko Legebiltzarrarentzat.

Dena dela, Etxebizitza Bideratzeko Plana urtean behin berraztertuko da Planaren iraunaldian, Plana bera EAEn testuinguru sozial eta ekonomikoan gerta daitezkeen aldaketetara egokitzeko, hala badagokio.



---

## Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saila

- **Ondorioen ebaluazioa**

Plana amaitzean, Planaren ondorioen txosten bat landuko da, lortutako emaitzak, horien erabilgarritasuna eta helburu berak beste bide egokiago batzuk baliatuta lortzeko aukera balioetsita.

2006-2009ko Etxebizitza Bideratzeko Planean lorturiko efikazia, eraginkortasuna eta ekitatea aztertuko ditu ebaluazioak.